

**TOLOSA**ko

# TOKIKO AGENDA 21EKO EKINTZA-PLANA 2015eko EBALUAZIO-EMAITZAK



*Gipuzkoako udalerriei TA21eko ekintza-planak ebaluatzeko eta programatzeko zerbitzua*

*Laguntza teknikoa: ELKARREKIN 21*



## Tokiko Agenda 21

1992an jaio zen (Rio de Janeiron) Garapen Iraunkorrari buruzko Nazio Batuen goi-mailako gailurrean lortutako hitzarmenaren bidez.


**24 urte beranduago, esanguratsua da Gipuzkoako udalerrietan Tokiko Agenda 21ak izan duen garapen-maila.**

2016. urtean ebaluatu ditugun ekintza-planak udalerri hauei dagozkie:



**Aduna, Alkiza, Arama, Amezketeta, Andoain, Arrasate, Astigarraga, Azpeitia, Deba, Debabarrena (eskualde mailako ekintza-plana), Donostia, Hondarribia, Hernani, Ibarra, Irun, Itsasondo, Ordizia, Orendain, Orexa, Tolosa, Urretxu, Zegama eta Zumarraga.**


## Nolakoa da gure udalerriko ekintza-plana?



## Gipuzkoako TA21arekin alderatuz?

Gure ekintza-planeko ekintza-kopurua antzeko tamaina duten lurraldeko udalerrien batez bestekoarekin alderatuz, **altuagoa** da.

Ekintzen garapenean **inplikaturik dauden eragile-kopurua** ere lurraldeko batez bestekoa baino **altuagoa** da.




# Nolakoa izan da ekintza-planaren ezarpen-maila 2015 urtean?

**%65a** ezarri da bere 6. urtean


**%11ko** hazkundera 2014 -2015 epealdian

## Bilakaerak zer adierazten du?

Lortutako ezarpen-maila **baxuagoa da** **desiragarria** den **helburuko** balioarekiko. Hala eta guztiz ere, Tolosako Planaren garapen-maila lurraldeko **batez besteko balioaren gainetik dago**.



## Nolakoa da ekintzen ezarpen-maila?



■ Hasteko  
 ■ Hasita  
 ■ Aurreratuta  
 ■ Amaitzen  
 ■ Amaituta

## 2015ean amaitutako ekintza adierazgarri batzuk:

1.1.5 Kale garbiketako ordenantza idatzi

1.10.7 Turismoko mahaia sortu

1.13.2 Tolosa marka sustatu eta promozionatu, bi merkataritza elkarteen lana batuz

2.3.1 Gerontologiko berria martxan jarri

2.7.1 Balio anitzeko 5 etxebizitza egokitu eta martxan jarri gizarte bazterketa jasaten edo horren arriskuan daudenentzat

4.5.3 Irizpideak ezarri hondakinak biltzeko sistemari buruz eta biltzeko guneen kokapenei buruz

4.5.4 Auzo-konpostaia egiteko guneak sortu eta gai honen inguruko sentzibilizazioa egin

5.1.5 Gazteentzako zerbitzu bereziak kontsolidatu, festetan kotxearen erabilera gutxitzeko.

5.2.5 Klima aldaketaren aurka egiteko programa idatzi

## 2015ean hasteko dauden ekintza adierazgarri batzuk:

2.7.3 Familia topagunea sortu

3.4.5 Irizpideak bateratu kirol, kultur, gizarte... taldeei lokalak uzteko


4.5.1 Erosketarako poltsa sortu plastikozko merkatuko poltsak kentzeko

2.4.2 Garraio adaptatuaren eskaintzaren informazio zehatz eta eguneratuaren puntu bat jarri

1.16.2 Kutsadura akustikoa erregulatzeko ordenantza idatzi

3.6.1 Kirol guneen mapa osatu

## Ildo estrategikoen arabera ezarpen-maila





## 2017 urtera begira bultzada beharko luketen helburu estrategikoak:

**HERRIKO BALIABIDE NATURALAK BABESTU, KONTSUMO JASANGARRIA SUSTATU ETA HONDAKIN KUDEAKETA OPTIMIZATU: %51ko** ezarpen-maila lortu du.

Honako helburu zehatzez osatuta dago:

- Gune naturalak, landa guneak eta berdeguneak berreskuratu.
- Biodibertsitatea hobetu eta babestu.
- Uraren kontsumoa gutxitu eta erabilera eraginkortu.
- Berdeguneak eta gune irekiak hobetu eta garatu.
- Hiri hondakinak gutxitu eta birziklatu.
- Herritarrak kontzientziatu, erosketako erabakiek dituzten ingurumen- eta gizarte-ondorioak direla-eta.
- Herritarrak sentsibilizatu, kontsumo jasangarriagoaren inguruan.
- Tokiko azoka eta merkataritzan produktu jasangarriagoak egotea bultzatu.

**KULTURA, EUSKARA, KIROLA ETA AISIA SUSTATU BERRIKUNTZA PARAMETROETATIK: %61eko** garapen-maila lortu du.

Honako helburu zehatzez osatuta dago:

- Tolosako bizitza kulturala eguneratu eta modernizatu.
- Kultur sormena eta produkzioa lagundu eta sustatu .
- Tolosako kultur eskaintza eta bere "kultur hiri" sona indartu.
- Udal lokal eta ekipamenduak berritu, erabili, esleitu eta kudeatu.
- Kirol politika segmentatu.
- Kirol ikerketa, garapena eta berrikuntza.
- Aktibitate fisikoa eta osasuna sustatu.
- euskara, udalerraren identitate ezaugarri moduan, sartu eta haren zaintza sustatu.
- Herriko tradizioak berreskuratu.

## Partaidetza TA21en baitan

**PARTE-HARTZE BIDE  
NAGUSIA  
BILERA  
SEKTORIALAK DIRA**

**LANDU DIREN GAI  
NAGUSIAK:  
HAURREN HIRIA,  
MUGI.....**

**PARTAIDETZA  
PROZESUAK EZ DIRA  
TA21AREN BAITAN  
EMAN, HONEKIN  
LOTURA BADUTE ERE  
(AZKENEKOA  
BERRIKUSPEN  
PROZESUAN)**

**ESKOLA AGENDA 21  
LANDU DA**

# Informazio gehiagorako **ebaluazio-txosten osoa** kontsulta dezakezu ([www.tolosa.eus](http://www.tolosa.eus) web gunean eskuragarri)

